



2016KO IRAILAREN 26AN BATZARRAK EGIN ZUEN EZOHIKO BILKURAKO AKTA.-

Adunako udaletxeko Kultur aretoan egin du bilera 2016ko irailaren 26an, arratsaldeko 19:10etan, TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEAREN Batzarrak, JOSU AMILIBIA ALSUA Lehendakaria mahaiburu delarik, eta horretara ondoren zerrendatuko diren udaletako alkate eta zinegotziak bertaratu dira:

BERTARATUAK:

BATZARRAREN LEHENDAKARIA (%0,77): Josu Amilibia Alsua
ALTZOKO UDALA (%0,65): Josu Astrain Azkona
ANDOAINGO UDALA (%23,92): Ana Carrere Zabala
BERASTEGIKO UDALA (%1,72): Amaia Azkue Eizagirre
BERROBIKO UDALA (%0,93): Joseba Iñigo Aiertza Mujika
HERNIALDEKO UDALA (%0,57): Igaro Balda Izagirre
IBARRAKO UDALA (%6,95): Mikel Agirrezabala
LARRAULGO UDALA (%0,42): Aritz Sarria
LEABURU-TXARAMAKO UDALA (%0,61): Itziar Zubelzu Urbietta
LIZARTZAKO UDALA (%1,05): Leyre Gordo Castro
OREXAKO UDALA (%0,20): Eneko Maioz Ganboa
TOLOSAKO UDALA (%30,91): Patxi Amantegi Zubiria
ZIZURKILGO UDALA (%4,89): Aitor Sarasua Arruti

ETORRI EZ DIRENAK:

ABALTZISKETAKO UDALA (%0,54)
ALBIZTURKO UDALA (%0,53)
ALEGIAKO UDALA (%2,85)
ALKIZAKO UDALA (%0,61)
AMEZKETAKO UDALA (%1,58)
ANOETAKO UDALA (%3,09)
ASTEASUKO UDALA (%2,49)
BALIARRAINGO UDALA (%0,21)
BELAUNTZAKO UDALA (%0,42)
ELDUAINGO UDALA (%0,39)
GAZTELUKO UDALA (%0,28)
IKAZTEGIETAKO UDALA (%0,76)
IRURAKO UDALA (%2,73)
ORENDAINGO UDALA (%0,32)
VILLABONAKO UDALA (%9,61)

GAI ZERRENDA

Hona hemen bilerari dagokion Gai-zerrenda:

- 1. Uztailaren 28an Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak Gipuzkoako Ingurumen Gunearen aurreproiektua onartzearen kontrako helegitea.**
- 2. Uztailaren 28an Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak Gipuzkoako Ingurumen Gunearen bideragarritasun plana onartzearen kontrako helegitea.**

Mankomunitatearen Jarduneko Idazkari den Karmele Contrerasek eman dio fede aktari, Gemma Eceiza Mankomunitateko teknikariaren aurrean.

Lehendakariak Alegia, Alkiza, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Gaztelu eta Ikaztegietakoko ordezkariak gutunak aurkeztu ondoren eta Jarduneko Idazkariak estatutuetako 18.2 artikuluan diona egiaztatu ondoren, aipatutako udalerrri hauen ordezkariak jarraian agertzen den moduan geratzen da:

ALEGIAKO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua.

ALKIZAKO UDALA: Ordezkaria, Igaro Balda Izagirre

AMEZKETAKO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua.

ANOETAKO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua.

ASTEASUKO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua.

GAZTELUKO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua.

IKAZTEGIETAKO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua

Estatutuen 45. artikuluan xedatzen den bilerakideen kopurua bete denez lehenengo deialdian, Batzarra eratutzat jo da. Horrekin, gai-zerrendako gaiak aztertzeraz jo dute bilerakideek.

19:10etan Oresako Udaleko ordezkaria bertaratu da.

1. Uztailaren 28an Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak Gipuzkoako Ingurumen Gunearen aurreproiektua onartzearen kontrako helegitea.

Lehendakariak hartu du hitza eta azaldu du “Gipuzkoako Ingurumen Gunearen 1. Fasearen diseinu, eraikuntza, finantzaketa, eragiketa eta mantenimenduaren herri-lanen emakidaren aurreproiektuaren” aurka helegitea jartzeko arrazoiei buruzko txosten juridikoa, akta honi eranstean zaiona.

19:30etan Tolosako Udaleko ordezkaria bertaratu da.

Andoaingo Udaleko ordezkariak: “Dakigunez, Ingurumen Gunearen 1. Fasearen emakida horren kontratazioa arautzen duten baldintza pleguak onartuta eta argitaratuta daude dagoeneko. Eta enpresek euren proposamenak aurkezteko epea hilabete bat luzatu dute. Zer lor daiteke helegite honekin?”

Lehendakariak: “Sententzia aldekoa bada, jarritako inpugnazioak hasierako erabakien gain direnez, prozesu guztian atzera egin beharko lukete. Badakigu hau oso zaila dela, baina behintzat lor daiteke prozesua hilabete batzuz luzatzea.”

Andoingo Udaleko ordezkariak: “Eta kasu horretan, enpresa lizitatzaileri kalte-ordain ekonomikorik emango litzaieke?”

Lehendakariak: “Ez dakigu. Baina kasu horietan ardura GHKrena da, gauzak hasieratik behar bezala ez egiteagatik. Epearen hilabeteko luzapenaren arrazoia ere ez dakigu, ez baitigute azaldu. Batzarkidea izanik ere, nik prentsa bidez izan dut erabakiaren berri.”

Gaia aztertu ondoren bozketa egin da. Udal baten aurkako botoarekin (%30,91) eta gainerako hemeretzi Udalen aldeko botoarekin (%54,34), erabakiak hartzeko Estatutuen 46. artikuluan xedatzen den gutxienerako kopurua bete denez, Batzarrak ondorengo

ERABAKI DU

LEHENA.- Mankomunitateko Lehendakaria den Josu Amilibia Alsua ahalmentzea Gipuzkoako Hondakinen Kontsurtzioak 2016ko uztailaren 28an Gipuzkoako Ingurumen Gunearen aurreproiektua onartzeko hartutako erabakiaren aurkako helegitea jartzea. Baita ere ahalmentzea Tolosaldeko Mankomunitatearen interesak eta eskubideak defenditzeko beharrezko diren ekintzak eta neurriak hartzeko, Gipuzkoako Hondakinen Kontsurtzioan eta GHK SAUK Ingurumen Gune horren inguruan hartzen dituzte erabakien eta ematen diren mugimenduen aurrean (dokumentazioaren azterketa, helegiteak...).

BIGARRENA.- Gipuzkoako Hondakinen Kontsurtzioari eta GHK SAUKi onartutakoa jakinaraztea.

2. Uztailaren 28an Gipuzkoako Hondakinen Kontsurtzioak Gipuzkoako Ingurumen Gunearen bideragarritasun plana onartzearen kontrako helegitea.

Lehendakariak hartu du hitza eta azaldu du “Gipuzkoako Ingurumen Gunearen 1. Fasearen diseinu, eraikuntza, finantzaketa, eragiketa eta mantenimenduaren herri-lanen emakidaren bideragarritasun planaren” aurka helegitea jartzeko arrazoiei buruzko txosten juridikoa, akta honi eransten zaiona.

Gaia aztertu ondoren bozketa egin da. Udal baten aurkako botoarekin (%30,91) eta gainerako hemeretzi Udalen aldeko botoarekin (%54,34), erabakiak hartzeko Estatutuen 46. artikuluan xedatzen den gutxienerako kopurua bete denez, Batzarrak ondorengo

ERABAKI DU

LEHENA.- Mankomunitateko Lehendakaria den Josu Amilibia Alsua ahalmentzea Gipuzkoako Hondakinen Kontsurtzioak 2016ko uztailaren 28an Gipuzkoako Ingurumen Gunearen bideragarritasun plana onartzeko hartutako erabakiaren aurkako helegitea jartzea. Baita ere ahalmentzea Tolosaldeko Mankomunitatearen interesak eta eskubideak defenditzeko beharrezko diren ekintzak eta neurriak hartzeko, Gipuzkoako Hondakinen Kontsurtzioan eta GHK SAUK Ingurumen Gune horren inguruan hartzen dituzte erabakien eta ematen diren mugimenduen aurrean (dokumentazioaren azterketa, helegiteak...).



BIGARRENA.- Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioari eta GHK SAUri onartutakoa jakinaraztea.

Eta bileraren helburua beteta, arratsaldeko 19:35 direnean, Lehendakariak bilera bukatutzat eman du eta nik, Jarduneko Idazkari naizenak, guztia ziurtatzen dut.

LEHENDAKARIA

JARDUNEKO IDAZKARIA